



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



Asteartea
2008-03-18

VIURTEA 1.389.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

JOSE IGNACIO INSAUSTI GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO GAZTERIA SAILAREN ZUZENDARIA

«Gaur haurrekin egiten ez duguna, helduak direnean berandu izango da»

TOLOSA Egokitze lanak bukatu ostean Sevendenea etorkin adingabeen lehen harrera zentroa zabaldu dute

ISTILUAK «Arazoak sortzen dituzten gazteak gutxiengoak dira», dio Foru Aldundiko Gazteria sailaren zuzendariak 2-3



Tadeo Urkola eta Denis Ruiz, Manent taldekopartaidiak. ESTI EZEIZA

MANENT, MAITASUNARI DOINUA EMATEN

TOLOSA 'Txuribeltzeko amodioa' diskoa kaleratu dute tolosarrek 6

Miel Mari Elosegik ezin izan du Nafarroako txapela etxera eraman

LEITZA Bertsolaritza Txapelketako finalean zazpigarren egin du; Julen Zelaietak irabazi du 4

Eneko Galarraga Espainiaren esku utzi du Frantziak

VILLABONA Gaztea Donibane Lohizunen atxilotu zuten atzo polizia-etxean 5

Abel Barriola Binakako Txapelketatik at

LEITZA Txapelketa abiatu zenetik partida bakarra galdu zuen leitzarrak; Titin-Laskurain eta Mendizabal II-Olaizola II izango dira aurkari 4

ABURUZA Eraikuntzak, S.A.

Kale Berria, 46 behea • Tel.: 943 69 02 97 • Fax: 943 69 00 52 • 20150 VILLABONA

E Elkarrizketa**JOSE IGNACIO INSAUSTI** › Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteria Sailaren zuzendaria

Gizartea » Besteak beste, etorkin adingabeen gaia ematen du Jose Ignacio Insausti beasaindarrak; Tolosako Sevendenea egoitza lehen harrerako zentroa da.

INIGO TERRADILLOS

Egokitze lanak bukatu ostean Tolosako Sevendenea etorkin adingabekoentzat lehen harrerako zentroa zabalik dago berriro ere. Jose Ignacio Insausti Gipuzkoako Foru Aldundiko Haur eta Gazteen sailaren zuzendariak hitz egin du Tolosako zentroaren egoeraz, eta orohar, Gipuzkoan, adingabeen inguruan.

Sevendenea egoitza lanak amaitu dituzue.

Itxita egon da hainbat hilabetez, berritzea behar zuelako. Estruktura ez dugu ukitu, baina gelak berri-tu ditugu, pintatu egin dugu, etxe-ak behar zituen berrikuntzak egin ditugu.

Tolosako urgentziako lehen harrerako zentroa da. Zer esan nahi du horrek?

Iritsi bezain laster balorazio bat egiten da, eta hori Tolosakoa bezalakoetan egiten dugu. Iristen den horren asmoak jakin behar dira, hau da, hemen geratu nahi duen ala ez. Prozesu administratiboa jartzen da martxan orduan, errolda, erregularizazio prozesua, osasun txartela... Probak egiten zaizkio osasun aldetik, nola dagoen jakiteko. Hezkuntzari pasatzen zaio txostena zentro bat egokitzeko. Alfabetizazio prozesu batean sartu behar den ala ez ikusi behar da. Hortik balorazioa eginez, 5 egunetan edo beste urgentziako zentro-etara bideratzen ditugu.

Eta urgentziako zentroetan nola jarraitzen du prozesuak?

Legeak markatzen du urgentziako zentroetan 3tik 6 hilabetera egon daitezkeela. Batenbat denbora gehiagoz ere egon daitezke kasuan kasuko tratamendu bereziengatik. Helburua da 6 hilabete horietara iritxi gabe oinarriko programara lehenbailehen pasatzea, baina horretarako gazte horren egoerak nahiko erregularizatu egon behar du, eta beste erakundeek ere azkar aritzea esan nahi du horrek, eta gu hortxe aritzen gara presioa sartzen.

Ikastetxeetan gazte hauek sartzarako denbora luzea egon behar izaten dutela zain esan izan dute.

Iritsi den bezain laster hori egitea ezinezkoa da, esan bezala, ikusi behar baita ze prozesu eman behar duen gazte horrek. Baina, normalean 15-20 egunera ikastetxe bat egokitzen zaio. Prozesu honetan ardura handiena guk dugu, baina erakunde askok hartzen dute par-



«Gaur haur edo nerabeekin egiten ez duguna, helduak direnean berandu izango da»

te, guk koordinatuta: osakidetza, hezkuntza saila, Ertzaintza, kontsulatuak... helburu berarekin heziketa eta gizarteratze prozesua lortzeko.

Zein asmorekin etortzen dira hona gazte hauek?

Lan egitea izaten dute helburu nagusia. Lehenengo talka hori izaten da, gainera, izan ere, 16 urtera arte hezkuntza derrigorezkoa dugu hemen, beraz, azaldu behar zaie lan egitea ez dutela posible. Familiaren presioari erantzun behar

diote, gaztetxo askoren familiak hipotekatu egiten baitira hona etor daitezzen euren semeak, lana lortu eta gero dirua bidaltzeko. Beraz, ulertarazi behar zaie ezin dutela lan egin. 16 urtetik gorakoak Lanbide Hastapeneko Zentroetara bideratzen ditugu.

Zenbat etorkin adingabe daude une honetan Gipuzkoan?

168.
Zein izan da azken urteotako bilakaera, etorkin adingabeei dagokionez?

Egoera asko aldatu da 1997tik. Lehen oso gutxi etortzen ziren, eta gutxi geratzen ziren. Orain asko etortzen dira, eta asko geratzen dira. Baina egoera egunetik egunera aldatu egiten da; egokitze prozesua egunerokoa da, guk ez baitaigu bihar, etzi, edo hemendik hila-bete batera zein egoera berri izango dugun. Azkenekoetan, esaterako iritsi zaizkigun guztietatik adina asko jaisten ari dela esan daiteke, eta horretarako errekursoak martxan jarri behar dira. Egoera

hori mantenduko den, adina jeitsiko den ala igoko den... hori ez dakigu. Dakigun bakarra da, legez, hona iristen diren babesik gabeko adingabe guztiak onartu behar ditugula, eta bakoitzarekin heziketa prozesu bat jarri behar dela martxan.

Geroz eta gazteagoak datoz beraz?

Bai, gainera, aurten, urte hasieran asko iritsi dira, eta hori urte hasiera batean ez da oso ohikoa, baina aurten aldaketa hori izan da. Adinari

dagokionez, 9 urtekoak ere iristen hasi dira, eta neskak ere hasiak dira iristen, eta hau ere ez zen ohikoa beraien kulturagatik.

Nola aurre egin egoera berriei?

Egoera berri hauen aurrean planifikazioak egin behar ditugu, eta Foru Aldundiak aurrekontuetan esfortzu handia egin behar du eta egiten ari da, bai hemengoentzat, bai eta atzerrikoentzat ere zentro berriak egiteko. Guztiari erantzuteko moduan egotea da gure asmoa.

Adingabeen zentroetan hutsuneak izan direla onartu zenuten.

Normala da hutsuneak egotea, ez baitakigu ze errealitate iritsiko zaigun. Errealitate berriak ez dakigu noiz sortuko diren, sortzen zaizkizu eta horri erantzuna eman behar zaio, eta askotan horrek sortzen du hutsunea, baina konpontzen saiatzen gara, baina ez agian momentuan.

Nola erantzun diezue hutsune horiei?

Dirua ari gara jartzen, erosten ari gara, zentroen sarea zabaltzen ari gara, baina niri une honetan kezka gehien sorrarazten nauena da herritarrek noraino utziko diguten sare hori zabaltzen. Ulertu behar dugu ez badugu ongi erantzuten

ez direla soilik kaltetuak izango atzeritik datozenak, bertako haur eta nerabeak ere kaltetuak izango dira, azken batean protekzio sistema denentzako baita.

Errefoztuak jarriko zenituzela aipatu zenuten.

Esaterako, Gipuzkoan zentro berezi bat ireki dugu arazoak sortzen dituztenentzat, bai atzerrikoentzat,

«Geroz eta gazteagoak datoz; bederatziru urtekoak hasi dira eta neskak ere bai»

«16 urte izan harte ezin dutela lan egin jakitea da lehen taldia, familiaren presioa handia baita»

bai eta bertakoentzat ere, heziketa prozesu bat izan dezaten. Hau herrigunetik urrun dago. Ea horrek herritarrei lasaitasun bat ematen dien. Ziur nago hemendik denbora gutxiara zentro honen emaitzak nabaritutako direla. Horretaz gain, zentroak kudeatzen dituzten elkartei emanda dago agindua errefoztua behar duten unean martxan jartzeko, izan ere, ezin dugu prozesu administratibo ba-

ten zain egon. Behar den unean jartzeko esana daukagu. Hezkuntzari dagokionez, protokolo bat lotu genuen duela 3 urte, nahiko berritzailea. Espainian hori ari dira erakusten, beraz, erreferenteak garelara esan beharra dago. Hobetu dena hobetu daiteke, baina ari gara lanean, eta ni ziur nago askok eta askok iritzia aldatuko dutela emaitzak nabaritzen hasten direnean. Egokitzen joan behar dugu, hutsuneak betez, egiten ari garen bezala, eta espero dut hemendik hilabete batzuetara beste era batera hitz egitea gai honi buruz, normaltasun batera iristea, baina denon aldetik.

Tolosako adibidea beste herrietan ere baliagarria izaten ari da.

Tolosaren kasuan, gai hau jorratzen duen mahai bat osatua daukagu udal teknikari, elkarte eta abarrek, eta bere fruituak ematen ari da. Udalari eskertu beharra daukagu izan duen jarreragatik, izan ere, Tolosakoa beste herriak ari dira erabiltzen emaitza onak ari baita ematen.

Gazte hauek berriro ere Sevendeneara bueltatzeaz zeudela euren eta Tolosako alkatearen aurkako pintaketak ikusi ditugu. Zer egin behar da horren aurrean?

Iritziz aldatzea ez da erraza. He-

men abiapuntua zera da, immigrazioa bere osotasunean onartzeko prest gauden ala ez. Normalean telebistan ikusten dugunean zein egoeratan bizi diren hainbat lurraldetan herritarrek esaten dute zerbait egin beharra dagoela beraien alde. Baina gero gure ondoan edo inguruan badaude, orduan beste era batera jokatzeko dugu. Be-

«Tolosan mahaia osatua dugu ordezkari desberdinekin; emaitza onak ari da ematen»

«Egoera berrien aurrean erantzuten jakin behar da; kontua da ez dakigula zerekin topatuko garen»

raz, ahoa betetzen zaigu solidarioak garelara eta abar esanez, baina gero horrelako kasuetan ez da hori gertatzen. Nik euskaldunei gogorazazi nahi diet gure aitona amonek emigratu egin zutela egoera hobeko baten alde. Baina orain, egoera hobean gaudenean beste guztiak ez ditugu onartu behar? Hau errealitate bat da. Prestatuta gauden bai ala ez? Prestatu egin beharko dugu, izan ere, helduak ala adinga-

beak iristen joango dira. Kontuan hartu behar dugu gaur haur eta nerabeekin egiten ez duguna helduak direnean berandu izango dela.

Gazte hauen gizarteratzea ez da erraza izango.

Kanpotik datozen gazteak dira, beste kultura batekoak, eta integratzeko ez daberteratzea, kultura berri batean, sistema berri batean sartu behar dute. Eta bizitako egoerak ere aintzat hartu behar dira, izan ere, gazte hauek hona iritsi aurretik izan duten prozesua eta bizi izan dituzten egoerak oso latzak izan daitezke kasu askotan.

Gipuzkoan etorkinen kopurua txikia da beste lurraldeekin konparatuz.

Hala da. Dena den, nire ustez, denoiz dagokigu, sentsibilizatzea. Onartu beharra dugu immigrazioa ez dela desagerteruko. Ez badugu onartzen sortuko den bakarra liskarrak dira, eta uste dut nahikoa helduak garelara errealitate berriak onartzeko. Nik herritarrengan dut konfiantza; gutxi batzuk onartzen ez duten arren, baikor izan eta pentsatu nahi dut herritar gehienek ez dutela jarrera hori. Ziur hemendik urte batzuetara normaltasunez ikusiko dugula gai hau.

«Gutxiengoa dira arazoak sortzen dituztenak»

Foru Aldundia Igeldon egoitza berri bat ari zen egokitzen, baina, pasa den martxoaren 2an erre egin zuten. Ikerketen arabera, probokatua izan zen sutea.

Zergatik eman zioten su Igeldoko egoitza berriari?

Garbi dago probokatua izan zela. Zergatiari dagokionez, argi esan dezaket bertan adingabeentzako zentro bat ez zelako nahi izan zela. Ez da konponbiderik egokiena. Normalean gazte hauei arazo-dun batzuk bezala begiratzen zaie. Nik beti mantendu izan dut hauetatik kopuru txiki batek ematen dituela arazoak, eta hauentzat errekursoak edo baliabideak jarri behar ditugula. Hauentzat zentro berezi bat iriki berri dugu, gainera. Baina, esan bezala, gutxiengoa izaten dira. Gehien kezkatzen nauena da, gazte hauetaz asko hitz egiten dela, baina bertakoek ere arazoak sortzen dituztela. Igeldoko kasuan, hori egin duenak edo dutenek bai kezkatzen nautela, gurasoak badira edo izango badira, esaterako, a zer baloreak emango dizkien seme-alabei.

Bertara joan behar ziren adingabeei nola azalduko diozue gertatu dena?

Horrek asko kezkatzen nau. Nola esan beraiek egon behar ziren etxea heldu batzuek erre egin dutela? Garbi esan behar zaie bertan nahi ez dituztelako dela.

Noiz jarri behar ziren bertan bizitzentz?

Aste Santu inguruan edo. Zoritxarrez orain ez daukate bertara joaterik, baina garbi utzi nahi dut lehenbailehen berrikuntza lanekin hasiko direla eta behin horiek amaituta, zentroa zabalduko dugula.

Seguran antzeko ezbeharrak gertatu zen. Kasu hartan bi adingabek sortua.

Seguran gazte talde bat zegoen, eta horietatik bi zeuden arazoak sortzen zituztenak, eta guk salaketak jarriak genituen. Bi hauek esan zuten Seguratik ez zutela joan nahi, eta beraien erantzuna hori izan zen. Neurriak jarrita daude bi gazte hauentzat, epaitegiak erabaki baitzuen erreforma zentrorako sartzeari. Dena den, gehiago kezkatzen nau Igeldokoa bezalako zerbaitek, helduek eginga baita; izan ere, ziur nago hori egin duenak edo dutenak arduratsu bezala eta baloreak balituzte bezala agertzen direla herritarren aurrean. Orain Igeldon gertatu da, baina agian gerta daiteke bere bizilagun batekin haserretzen denean horrelako gauza bat edo txarragoa gertatzea, horrek kezkatzen nau.

Segurako kasuan, Ertzaiztaren gana ere joan omen ziren bi gazte hauen jarrera salatzea.

Arazoak sortzen zituzten bi gazte hauekin gainerako adingabeek elkarbizitza ez zuten erraza. Hala, talde bat, hain zuzen ere hamalau gazte osaturikoa, Ertzaiztaren gana joan zen eskatuz neurriak har-



zitzatela bi mutil hauekin. Hau zoritxarrez herritarrek ez dute eza gutzen, baina horrek indarra ematen dio guk hemendik zabaltzen dugun mezuari, hau da, gutxiengoa direla nolabaiteko arazoak sortzen dituztenak.

Komunikabideek ere eragin handia dute gizaratean horrelako gaiekin.

Normalean zer edo zer egin izan dutenean agertzen dira. Diskurtso nahiko kezagarria erabili izan dute komunikabide askok; horrek korapilo bat sortzen du, handituz doa, eta gero txikitzeak bere zailtasunak ditu. Demagogia handia egin da etorkin adingabeekin, baina, esan beharra dago, hemen Gipuzkoan, 2007 urtean 1.100 gipuzkoar, haur, nerabe eta gazteak, izan ditugula protekzio sistemari, eta hori askotan ez da kontuan hartzen. Hauek arazoak sortu dituzte, baina arazo beraiek dute etxetik sortua. Ni beti prest egon naiz nirekin egon nahi duen guztiarekin egoteko, eta gure lana nondik nora dijoan azaltzeko. Prozesu guztia azalduta, hortik aurrera bakoitzak bere ondorioak atera ditzala. Baina, ondorioa ateratzen dute azkenean ataletik, prozesu guztia azaldu edo jakin nahi izan gabe. Azken batean, denok beste aldera begiratu dugu gai honekin, eta azkenean gai horri heltzen eta begiratzen hasi beharko dugu, izan ere kaltetuak haurrak direla konturatu behar dugu.

LT.



418 puntu lortu zituen Julen Zelaietak larunbatean, bigarren gelditu zen Barberenak, aldiz, 409,5. JOSU SANTESTEBAN

Julen Zelaieta beratarrak eskuratu du Nafarroako Txapelketako txapela

Bertsolaritza » Miel Mari Elosegik gripeak jota abestu zuen eta zazpigarren postua eskuratu zuen.

ERREDAKZIOA

Julen Zelaieta da Nafarroako txapel dumberrria, larunbatean Elizondon jokatuako finalen nagusitu baitzen bertsolari beratarra. Aurretik ez zegoen favorito garbirik, lehia estua izan zen zela aurreikusen zen eta halaxe izan zen, sailkatu ziren lehen 5 bertsolarien arteko tartea eskasa izan baitzen, 17 puntuko. Lur aretoa lepo bete zuten bertsozaleek gozatu zuten finalerakin. Miel Mari Elosegik gripearekin joan zen finalera.

«Buruakarga-karga egindanauela joan nintzen», dio Elosegik. «Egun bat lehenago jarr nintzen gaizki eta dudetan egon nintzen, baina azkenean joatea erabaki nuen». Halere, leitzarrak gozatu egin zuela dio. Txapelketari dagokionez, «irekia» izan zela azaldu du. «Zelaietak irabazi zuen, baina

Soto ere oso ongi ibilizen, baijan badirudi kartzelan ez zuela asmatu. Zelaieta oso ongi aritu zen». Beratarrengatik asko poztu zirela dio. «Nire helburua saio txukuna egitea zen, eta horrela izan zen, baina pena horrekin gelditu nintzen, hobeto banegoa saio hobe egingo bainuen». Leitzarrak puntukoan trabatu egin zela dio eta kartzelan, «oso ongi» aritu zela.

Txapela, Zelaietarentzat

Beratarrak indartsu ekin zion saioari, eta berehala erakutsi zuen bere bertsogintza ez dela umorearen esparrura mugatzen. Zortziko txikian eta handian oso ongi aritu zen, eta lortutako abantaila mantentzen jakin zuen Zelaietak. Kartzelako gaian ezusteko bidetik jo eta txapela poltsikoratu zuen.

Jon Barberena txapeldunordea zen eta begi asko berarengan zeuden jarrita. Akaso horregatik tentsioa sumatu zuen Erratzun bizi den Elizondoko bertsolariak, eta makal samar hasi zuen saioa. Hala ere, gora egin zuen saioak aurrera egin ahala eta azkenean iazko bigarren postua lortu zuen.

Finaleko gazteena zen Julio Soto. Iruñean bizi den bertsolari gorritiarrak saio erregularra egin zuen, eta oso txukun bukatu zuen kartzelakoan. Bigarren postua eskura izan zuen, baina azkenean hirugarrenarekin konformatu behar izan zuen.

Laugarren Erika Lagomak egin zuen, bigarren eta hirugarrenetik oso gertu betiere. Eta bosgarren, hainbat urtez txapelketan parte hartu gabe egon den Xabier Terros lesakarra. Txapelketara aurtan ere itzuli den Xabier Legarretak seigarren egin zuen, eta Iñigo Olaetxeak, zortzigarren.

Sari banaketa

Sari banaketan bertsolari bakoitzak bere saria jaso eta agurreko bertsoa egin zuen.

Julen Zelaieta bertsolariak Iñaki Murua Euskal Herriko Bertsotzale Elkartearen lehendakariaren eskutik jaso zuen trofeo eta Manu Legarrak bertsozale beteteranoak jantzi zion txapela. Hura jantzita, oso hunkituta, txapela lortzeko bidea egiten lagundu zuten guztiei eskaini zien.

Barriola eta Gonzalez, binanako finaletik at

Pilota » Titinek, Laskurainek, Mendizabal II.ak eta Olaizola II.ak jokatu dute binakako txapelketako finala.

zola eta Mendizabalen aurka jaso zuten porrota (22-9 galdu zuten). «Oso tanteo txarra egin zuten. Partida horretan tanto gehiago egin izan balituzte, gaur beharbada fixalean leudeke».

NAIARA GARZIA

Titinek eta Laskurainek herenegun Mendizabal II.ari eta Olaizola II.ari 22-12 irabazi ondoren, Barriola eta Gonzalez binakako txapelketako finaletik kanpo gelditu dira. Txapelketa abian jarri zenetik, partida bakarra galdu arren, finaletik kanpo gelditu dira, horietan baitira txapelketa honetako arauak. Horrela azaldu du Julian Iparragirre pilota adituak. «Sistema horrela da».

Iparragirren ustez, igandeko partida baino erabakiorragoa izan zen Barriolak eta Gonzalezek Olai-

Larunbateko partida

Larunbatean Labriten 2 bikoteak leher saiatu ziren, biezako hagitz garrantzitsua baitzen. Bengoetxea VI.ak eta Ruizek gauzak zailago izan arren, azken unera arte ez zuten esperantzarik galdu. Partidak 2 zati izan zituen, hasieran Bengoetxea eta Otxandorenak hobeki jokatu baitzuten. Bigarren zatian, berriz, Barriolak eta Gonzalezek aurrea hartu zuten eta partida irabazi egin zuten.

Igandeko partida falta zen, ordea, finalerako sailkatuko ziren edo ez ikusteko, eta azkenean, finaletik kanpo gelditu dira.



Nafar Jokoetan, 2 txapela etxera

LEITZA » Aurrera Pilota Eskolako pilotariet 2 txapela eskuratu zituzten larunbatean Nafar Jokoetako finalean. Mikel Sagastibeltza Lasartek eta Ander Garziarenak 18 eta 12 irabazi zieten aurkariet. «Partida ona izan zen», dio Pakito Sagastibeltza pilota eskolakoak. «Sagastibeltza nabarmendu egin zen». Mikel Hernandorenak eta Xabier Jaunarenak 18 eta 15 irabazi zuten. «Ikaragarriko partida izan zen, oso borrokatua». Iker Sagastibeltzak eta Ibai Azurmendik, aldiz, 18 eta 10 galdu zuten. «Izugarri polita izan zen partida. 6 edo 8 tanto egon ziren 50 pilotakada eman zituztenak, baina aurkariak gehixeago izan ziren». Pilota eskolarentzat 2 txapela lortzea «pozgarria» izan dela dio Pakito Sagastibeltzak. HITZA

Urteurrenak

IV. urtemuga JUAN JOXE AMENABARRO ITURRIOZ

Oroitzen zaitudanean, ama, sukaldian egoten zara mahaia bostentzat atondu, aukian eseri eta leihotik kristala lausotzen duen lurrina ezabatu gabe neguari begira eta ni —badakit— zure begien hondoan nagoea. Patian solasean eta lagun batek —Itolarria sentitzen diat... Zer den amaren begien egotea! (Joseba Sarrionandia)




beti maiteko zaitugu,
attona
ESTI, MARI, LANDER
ETA JOXE

Tolosaldeko eta Leizaldeko HITZA jarri
eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko HITZA.info / Tel.: 943-65 56 95



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Zerbitzu eskasia eta izaeraren alde

Gizartea » Berpiztuk Tolosaldeko auzoen arteko harremana bultzatzen du, eta beharrei errazago aurre egiteko bilerak egin ditu.

ERREDAKZIOA

Joan den astean Berpiztu programaren bitartez, Urkizun, Aldaban eta Auzo Txikien bilerak antolatuz zituzten, auzo hauen beharrik eta egin daitezkeen gauzak biltzeko asmoz. Auzotarren parte-hartzea ezinbestekoa izan da eta denetan auzoen mortasuna azpimarratu da.

Honen aurrean, Berpiztuk auzoen arteko batzorde bat antolatzeko proposatzen du, eta auzotarrak ados daudela erakutsi dute. Arrate Iturbek esan bezala, «elkarterik ez dute, eta beraien artean batzorde positiboak da. Auzo gehienetan beharrik berdinak dira». Honen aurrean, astero-astero elkartu egingo dira Iturbekin, auzotarrak, astelehenetan Urkizun, eta asteazkenetan Aldaban.

Beti ere, aurrera begira zein nolako auzoa nahi duten galdetu behar diobere buruari biztanle auzotarrak ere, eta Berpiztuk (Itsas-

Berpiztuk auzoen arteko batzorde bat antolatzea proposatzen du, eta auzotarrak ados daude

mendi, Tolomendi eta Tolosako Udalarekin osatuta dago) auzoak laguntzeko aukera ematen du.

Urkizun eta Auzotxikian datuak batzerakoan hauek izan dira emaitzak: landa eremuko bi auzo hauek 118 biztanle dago, eta 445 hektareako azalera daukate. Auzo hauek Albizturko baserri batzuk ere hartu dituzte kontuan, eta «dispersio handia dago», Arrate Iturbek, Aldaba, Urkizun eta Auzotxikiko Berpiztu programako teknikariak adierazi bezala. Parte-hartzea ezinbestekoa izan da, eta ikusi bezala, biztanle hauen interesa handia izan da, 25 bat lagun elkartu baitziren. Biztanlegoaren kopurua jaitzi egin da nabarmen, azken 20 urteak, esaterako, Auzotxikin, kontuan izanik: orain 72 dira, eta duela 20 urte, berriz, 216.

Urkizun haur dezente dago, eta gorakada izan da biztanlegoaren kopuruan. Baina, zerbitzu eskasia nabaria da, etxebizitza politika eza bezala. %41 basoa da, eta %38, larre eta belardia. Auzotxikin %61, basoa da, eta %32 larrea eta belardia.

Ahuleziak eta indarrak

Urkizun eta Auzotxikin biztanleek ikusten dituzten ahuleziak isolamenduan eta zerbitzu eskasian oinarritzen dira. Puntuaz puntu ateratu zituztenak, hala ere, hauek

dira: Tolosatik Urkizuko kaxokora 7 kilometro daude; auzogunean jende gutxi bizi da, beraz, auzo giro falta dago, eta baita auzotarren arteko antolakuntza falta ere. Beste alde batetik, herri ondasun eza dago: ez dago lokalik, udal lurrik. Garraioa eskasa da, eta baita zerbitzu eskaintza ere. Bukatzeko, azpiegituren egoera «kaxkara» da.

Auzo hauek dituzten indarrak aipatzeko garaian, hauek azpimarratu zituzten: daukaten auzo identitatea eta honen mantentzearen nahia, baliabide naturalak, emakumeek ikastaroak eta ekintzak egiteko interesa erakusten dute, ibilbideen aberastasuna, baserriek nekazaritza aktibitatea mantentzen dute, taberna bada...

Berpiztuk dituen helburuak

Berpiztu ekimenak lortu nahi dituen helburuak orokorrean lau dira: auzotarren eta Tolosako Udalaren arteko harreman, komunikazioa eta parte-hartzea hobetzea lehenik. Bigarren, biztanleria finkatu eta neurri egoki batean handitu auzoko kaxkoan. Hirugarrenik, aktibitate ekonomikoaren dibertsifikazioa eta sustapena lortu. Eta, bukatzeko, dauden kultur ondare zein natur baliabideak sustatu eta zaindu.

Lanerako metodologia «zonaldea ezagutzea eta diagnosia egitea izan da», Arrate Iturbek azaldu bezala. Ondorengo pausoa ekintza plan bat martxan jartzea litzateke.

Aldaban ere «nortasunari euste aldera»

Aldaban diagnostikoaren aurkezpena egin zutenean honako datuak batu zituzten: zahartze tasa altua dagoela, etorkizuna auzoan eraikitzeko aukera duten gazte gutxi dagoela, etxebizitza politika eza, lur hiritar kalifikaturik ez dagoela, eta azpiegitura eta zerbitzu eskasia azpimarratu zituzten.

Bestetik, %63 baso azalera da, eta %33 larre eta belardiak. Auzotarrak argi dute gauza bat; baserria bigarren aktibitate bezala mantendu nahi dutela. Baserriarekin lotuta, nekazaritza ekologikoa aipatu zen, baina baita oinordekotza ere, «kolokan baitago».

Bi auzoetan eragin positiboak ere dituzte: «Paisaia eta Nortasuna mantendu dute, eta nahi dute eta garbiak gainera».

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Etxebizitza.** Tolosa erdian bi logelako etxea salgai, egoera onean, oso merke. Interesatuak deitu: 665 70 86 35.

Eneko Galarraga Espainiaren esku utzi dute Frantziako agenteek

Politika » Gaztea Donibane Lohizunen atxilotu zuten atzo eta Espainiako agintarien esku utzi zuten handik gutxiira.

ERREDAKZIOA

Eneko Galarraga billabonatarra atzo goizean Espainiaren esku utzi zuten Frantziako polizia. Donibane Lohizunen atxilotu zuten, polizia-etxe batean, ohi bezala, sina-

tzera joan zen mementoan; ETari laguntza ematea leporatu diote. Iturrien arabera, neska-lagunaz agurtzeko aukera izan zuen.

Gaua Madrilgo komisaldegian igaro du, eta gaur goizean Auzitegia Nazionaletik pasa behar-koda.

Paulo Auzitegiak bere aurkako euroagindua onartu zuen martxoaren 4an. Atxiloteta Aste Santu aurretik izango zela espero zuten. «Terrorismoaren aurkako borrokan ari diren taldeek» jakinarazi

dutenez, Behobian utzi zuten Frantziako agenteek Espainiako Poliziaren esku eta hauek Auzitegi Nazionalera eramango dute.

Atxilotetaren zain

Eneko Galarraga, Villabonako gaztea iragan urtarrilaren 24an atxilotu zuten Frantziako Poliziak Urruñako bere etxean. Lau egun geroago, aske utzi zuten Paulo Auzitegiak bere aurka zegoen euroaginduari buruz ebatzi bitartean.

S Soka motzean

«Niretzako musika dena da; bizitzeko modu bat da»

IDOIA BALZA

Musika irakaslea

IMANOL GARCIA

Loatzo musika eskolan klarinetea, musika hizkuntza eta tailerrak irakasten ditu Idoia Balzak (Tolosa, 1975).

Zergatik aukeratu zenuen klarinetea?

Txikia nintzela instrumentua aukeratzeko entzunaldi bat egin zuten eta soinua gustatu zitzaidan.

Gustuko klarinete jotzaile bat?

Karl Leister.

Beste zein instrumentu aukeratuko zenuke?

Orain haize metalezko bat, tronboia edo horrelako bat.

Beste instrumenturik jotzen duzu?

Pianoa ikasten ari naiz.

Ezin musikarik gabe bizi, beraz.

Ez, ezin.

Musikaren arloa ez bazenu jorratu?

Euskal Filogogia daukat ikasita. Hortik bideratuko nuke.

Gaur eguneko musikari edo musika talde bat?

Edozein musika gustatzen zait, diskotekakoa eta reggetona ez bada.

Zer da zuretzat musika?

Niretzako dena da. Bizitzeko modu bat, bizia ikusteko modu bat eta pertsona gauzatzeko modu bat.



I. GARCIA

Atsedeen hartzeko etxea VILLATUERTAN duzu

Tierras y Valles

Urtetas eta Andilako Parke Naturalaren ondoan
Urbanizazio berrizila

Binakako etxeak eta erakin abakak, 170m² erabilgari artekoak
300m² arteko partzeekin
30m² baino gehiagoko bilakapenak - 4 gela, 2 bainu-gela eta komunak
Lehenengo mailako materialak - Lehiarik gabeko prezioak

Tolosa
Lizandri

Banarungo kalea, 1. solairuan
Tel: 943 05 11 22 - Muga: 679 94 27 05

Alda Vivendas
www.aldivivendas.com

Iruña
Gomik kalea, 30. behea

Tel: 948 29 14 13

Lizarrna
Wanako Printzearen kalea, 11. behea

Tel: 948 02 50 94

E Elkarrizketa**TADEO URKOLA ETA DENIS RUIZ** › Manent taldeko kideak

Musika › Manent musika taldeak bere lehendabiziko diskoa, 'Txuribeltzeko amodioa' kaleratu du orain egun gutxi; pop erritmoak egiten dituzte tolosarrek.

ESTI EZEIZA

«Sentitzen dut, baina pop musika gustatzen zait», esaten dute Manent musika taldeko kideek. Bost tolosarrek osatutako musika talde honek bere lehen diskoa kaleratu du Karl Watermarken laguntzarekin, eta zeresan handia sortzeko asmoz datoz. *Txuribeltzeko amodioa* izeneko lanean maitasunaren inguruan mintzatzen diren hainbat kantu bildu dituzte. Taldea ondorengo hauek osatzen dute: Denis Ruiz (ahotsa eta gitarra akustikoa), Tadeo Urkola (teklatuak), Iñigo (Iñaki) Agirre (gitarra akustikoa eta elektrikoa), Juanjo Falcon (baxu elektrikoa) eta Fermin Etxeberría (bateria).

Nondik sortu zen Manent taldea?

Denis Ruiz: Duela hiru urte inguru sortu zen. Nik ere, lehenagotik aurrera eraman nahi nuen proiektu bat neukan. Ondoren, Tadeorekin harremana nuen, eta elkarrekin zerbait egiteko asmoa aterazten.

Nork konposatzen ditu abestiak?

D. R.: Ni arduratzen naiz letrak idazteaz nahiz musika konposatzeaz.

Diskoa egiteko proiektua noiz sortu zen?

D. R.: Diskoa beste alde batetik etorri zen. Hasiera batean, kantuak beste estilo eta formato batean grabatuta zeuden. Country-aren antza zuten, ahotsa eta gitarra soilarekin eginak zeuden kantuak. Ondoren, Tadeo eta Carl Watermarken eman zioten forma, elektronikakutsua emanaz. Gero, talde bategi-turatzea pentsatu genuen, eta kideak biltzen hasi ginen. Azkenean, betiko lagunen artean osatu genuen taldea. Hala, diskoa etorri zengarai ia berean osatu zen taldea bera ere.

Beraz, hasieran zuten soinutik hona asko aldatu dira abestiak.

D. R.: Bai, erabat. Berez, hasierako kantua hor dago, baina bukaerako arekin ez du ia zerikusirik. Kantu guztiak daude estiloz aldatuta.

Egin nituenean, bakarlarri baten kantuak bezalakoak ziren, baina orain, prozesu baten ondorioz, erritmo azkarrago batera eta elektronikak doinuetara igaro dira.

Musika munduan esperientzia-dunak zarete gehienak.

Tadeo Urkola: Bai, denak ere aurretik ibiliak gara. Gutako batzuk arroneria taldeetan aritu dira. Ni berriz, dantzalekuetan DJ modura aritu naiz lanean.

Pop elektronikoa euskalduna egiten duzue.

ESTI EZEIZA

«Maitasunaz hitz egitea erraza da, baina nola egin asmatzea, zaila»

T. U.: Niri ez zait gustatzen talde baten musika definitzea. Hala ere, pop-a egiten dugula esango nuke.

D. R.: Tadeo da elektronika kutsua ematen diona. Gainontzekoek orain arte ez dugu horrelako musikak estilorik joratu. Baina gustatu zaigu, eta polita dela iruditzen zaigu.

Zeren inguruan hitz egiten dute zuen abestiek?

D. R.: Maitasunaz. Hau gai umibertsala baita guretzat. Maitasunaz hitz egitea erraza da, baina nola egin asmatzea, zaila. Guk amodioaz hitz egiten dugu, baina baita ho-

nen inguruan sortzen diren gauzetaz ere. Esaterako, *Nire mundura* kantua maitasunaz mintzatzen da, baina ez zuzenean, hau aitzakia da. Izan ere, amodioa uneoro dago gure bizitzan, eta ez da zaila hone-taz hitz egitea. Sedineekiko, animaliekiko, norberarekiko, munduarekiko, musikarekiko... izan daiteke hau. Amodioa da maitasun-abiapuntu guztia, eta oso erromantikoak dira kantuak.

Esprekin egin al dituzue maitasunarekin lotutako kantuak?

D. R.: Horrela ateratu dira. Zeren, hauetako batzuk, amodioaz ez

ezik, beste gauza batzuetaz ere hitz egiten dute. Esaterako, *Hisia*, gure lehen singlean, sexua da gaia. Ez du maitasunarekin loturarik.

Zer aurkituko dute Manent lehendabiziko aldiz entzungo dutenek, zer eskaintzen duzue?

D. R.: Lasaitzeko momento eta musika eramangarria entzuteko aukera eskaintzen du diskoak. Gainera, kantuetako hitzak ongi entzunez gero, gogoetarako bidea ematen dute. Abesti guztiek bere mezua dute. Horri, gero, bakoitzak aterako dizkio ondorioak. Gure helburua da, diskoa entzun ondo-

ren jendea hotz ez geratzea, eragina izatea.

Zein da zuen helburua?

D. R.: Oraingoz helburu jakinik ez daukagu. Hasiera batean, gure musika eraman nahi dugu aditzera eta jendeari gustatzen zaion edo ez jakitea. Gero, afari eta parranda batzuk ordaintzeko adina ateratzen badugu, hobe.

T. U.: Nire helburua beste disko bat egitea da. Honen ondoren, beste bat egin nahi dut.

Euskal Herrian, zuen estiloko musika egiten duten taldeak falta dira uste al duzue?

T. U.: Bai, zalantzarik gabe. Orain arte, aukera gutxi izan dira.

«Kantuetako hitzak ongi entzunez gero, gogoetarako bidea ematen dute hauek»

«Guk egiten dugun pop-a orain arte gutxi entzun da hemen, hau askozaz ere markatuagoa baita»

«Amodioa uneoro dago gure bizitzan eta ez da zaila honetaz hitz egitea; erromantikoak gara»

D. R.: Badaude pop musika egiten duten taldeak. Esaterako, Split 77 eta Kerobia. Hauek ere elektronika doinuak sartzen dituzte beraien kantuetan. Horregatik, bide bat egin dago, baina oso txikia. Orain arte pop-a gutxi entzun da, izan da, rock deskafinatua, edo horrelako zerbait. Guk egiten dugun pop-a gutxi entzun da, gurea askozaz ere markatuagoa dago. Ez dago erdi-biderik, ez da mozturrotuta agertzen, beste askotan ageri izan den bezala. Horrelako zerbait topatzea zaila da Euskal Herrian, eta asko harriritu gertatu dira.

Zuena bezalako talde batentzat erraza al da bidea egitea euskal musikan?

T. U.: Ez da batere erraza. Gainera, zerbait komentario txar ere entzun behar izan ditugu.

D. R.: Gure helburua da jendeari gustatzea. Horrela bada, gauza gehiago egitera animatuko gara.

Carl Watermarken lagundu dituzte disko honetan; nolatan?

T. U.: Nik lehenagotik ezagutzen nuen, eta lau disko grabatuta neuzkan berarekin.

D. R.: Lotura ondorengo izan da. Ni Tadeorekin jarri nintzen harremanetan, eta honek eraman du batetik bat aurrera diskoa. Nik musika neukan, eta beran eman zidan diskoa ateratzeko bultzada.

Kontzertuak ematen hasi al zarete?

T. U.: Ez, oraindik ez.
D. R.: Oraindik entseguekin ari gara, eta pixka bat martxan jarritzen. Hala ere, hasteko gogo handiarekin gaude, eta kontzertuak emateko.

Erdal giroan bizi diren haurrek, astebetetz euskal giroan bizitzeko aukera dute Alkizan.

Kaxintaren errekorra

ARRATE OTERMIN

Ingurune erdaldunean bizi diren eta euskaraz ikasi edota euskara ikasten duten haurrak etortzen dira Alkizara, euskararen inguruan emozioz betetako bost eguneko bizipena bizitzera. Egun hauetan lortu nahi diren helburuak, haurrek ongi pasatzea eta euskaraz egitea dira.

Gasteiztik Alkizara

Gasteizko Vera Cruz ikastetxekeo haurren oihuak eta zalapartak ozen entzun daitezke Alkizako Barnetegi atarira hurbiltzean. Etxeko ganbaran daude guztiak Imanol Lizardi arduradunarekin ekintzaren bat burutzen. Berehala prest eta bakoitza bere lekuan jarri dira, Kaxintaren abestia eta dantza antzetzeko asmotan.

Astean zehar gauza asko ikasi dute, eta baita elkarrekin kontu mordoa euskaraz aritu ere. Ez dute aspertzeko betarik izan. Astelehenean etorri, eta ostiralera arte, ez dute etxera bueltatzeko batere gogorik. Asteleheneko eguna bukatu zenean, etxera joan nahi ez-eta omen ziren haur batzuk.

Lehenengo egunean, haurrak taldean biltzen dira, eta astean zehar egingo duten guztia azaltzen diete. Haurrek ere badute horretan parte hartzerik, astean zehar Alkizan egingo duten egonaldiaz espero dutena azalduz. Hori guztia idatziz biltzen dute, eta polit-

Lehenengo 12-15 eguneko egonaldiek euskararen erabileran eragin handiagoa zuten

polit jarri ondoren, paretan itsatsi. Azken egunean, aste osoko balorazioa egiten dute.

Baina bada besterik: Kaxintaren txirringa. Haurrak erabat hunkitu eta urduritzen dira Kaxintaren izena entzutearekin batera. Oso maite dute denek Kaxinta.

Kaxintaren txirringa

Ume zelarik iritsi zen Kaxinta bere txirrinindulan Alkizara. Udaberriaren bere arraztatik atera zenetik, oso arraro sentitzen zen, bere inguruan ez baitzen beste oilorik. Berarekin bizi ziren gainerako hegaztiak urruneko lurraldeetara hegan egiteko garaia iritsi zitzaizenean, bakarrik geratu zen Kaxinta. Beraz, txirringa hartu eta Alkizara etorri zen bertako oiloekin bizitzera. Geroztik, bertan bizi da.

Kaxintaren errekorra hausten saiatzen dira barnetegira datozen

haurrak. Kaxintak tratua egiten du haiekin. Alkizan dauden bitartean euskaraz hitz egiten saiatzeagatik, segundak eta minutuak ematen dizkie barnetegiko laguntxoek. Eta azken egunean, aste guztian pilatutako denbora erabiliz, bizikleta gainean jarrita barnetegiko erronka hausten saiatzen da talde osoa, ordura arte metro gehien egin dituen taldearen marka gainditzen, alegia.

Irakasleak ere gustura

Euskara landu eta bultzatzeko helburuarekin datoz hona. Gasteizko errealitatea hemengoarekin alderatuta oso desberdina da, eta bertako ikasleekin lan egin nahi bada, beharrezko dute aste oso bat euskaraz inguraturik bizitzea. Oso gustura daude Alkizan lan egiteko moduarekin. Modu ludikoan eta ilusio handiarekin aritzen dira lanean, eta haurrek ilusioz transmititzen zaien guztia oso gustura hartzen dute. Gerora ere, irakasleen lana errazten du egonaldia. Haurrei nabari zaie aldaketa, bai euskara mailaren aldetik, baita euskararen ganakako jarrera aldetik ere.

Barnetegiak

Orain dela 18 urte, Hezkuntza Sailak, Alkizako apaizarekin hitzarmen bat egin eta hartu zuen etxea. Barnetegiak orain dela 23 urte sortu ziren: Bizkaian lehena. Handik urte pare batera Gaztelun sortu zuen beste bat, eta sortzen hirugarrena izan zen Alkizakoa. Gaur egun, bost dira martxan diren barnetegiak, bana Bizkaian eta Araban eta beste hiru Gipuzkoan. Barnetegi hauek guztiak, 3. mailatik DBH 2ra bitarteko ikasmailek, egonaldia bat egiteko aukera eskaintzen dute.

Orain dela zazpi urte arte, Plentzia eta Alkizako barnetegietan egiten ziren egonaldia 12-15 egunetakoak ziren, asteburuak barne. Egonaldia haiek, oraingo bost egunetako egonaldien aldean, euskararen erabileran eragin handiagoa zutela azaldu dute.

» KULTUR ETXEAREN EZAUGARRIAK

- **1. Solairua.** Barnetegiarena; jolaserako gela eta diskoteka.
- **2. Solairua.** Kultur Etxea.
- **3. Solairua.** Barnetegiarena; filmak egiteko gela, ordenagailu gela, bulegoak, logelak eta komunak.
- **4. Solairua.** Barnetegiarena; ekintzetarako eta aisiarako lekua.



Vera Cruz ikastetxekeo ikasleak Kaxintaren dantza dantzatzeko. I. GARCIA

«Euskararekin emozionalki lotu nahi ditugu haurrak»

IMANOL LIZARDI » Barnetegiko arduraduna

Alkiza » «Euskara, eskola usaina duten ekintzetatik urruntzen saiatzen gara», azaldu du barnetegiko arduradunak.

A. OTERMIN

«Haurrak euskararekin emozionalki lotu nahi ditugu». Horrela definitzen du euren lana Imanol Lizardi barnetegiko arduradunak. Lotura hori ahalbidetzeko, haurrek oso gustuko dituzten ekintzak antolatzen dituzte euskaraz. Jolasa eta ekintza hauek, norbanakoaren eta taldearen barne giroa hobetzen dute.

Bada haurrek euskaraz egiteko formularik?

Ez, ez da formula magikorik, eta gu ere, ez gabilta formula magikoaren atzetik. Haurrak goxo-goxo tratatzen ditugu, eta haienganako maitasuna euskaraz erakutsi. Hemen bizitako sententzia berri horiekin, haurrek, euskararekiko bestelako posizionamendua erakusten dute. Gainera, hemen daudden bitartean, Alkizako haurrak euskaraz nahi bizi dituzten ikusten dute. Eta diskurtso horrekin haurrak harriturik geratzen dira.



I. GARCIA

Zein estrategiaz baliatzen zarete orduan?

Hemen ez diegu haurrei sekula ikasgaririk eman, ezta euskara ikasgai moduan tratatu ere. Beti saiatu gara euskara, eskolaz kanpoko errealitatearekin ekartzeko. Barnetegiaren errealitatea erakusten diegu, nola bertan euskaraz bizi diren, eta erdara, beranduago jasotako hizkuntza duten. Azken urteetan estrategia aldaketa batzuk bereratu dira.

Zein aldaketa?

Hasiara batean, haurrak barnetegiaren ziren artean, «euskaraz egin,

bestela autobusa hartu eta etxera zoaz» bezalako esaldiekin euskaraz egitea behartzen genituen. Baina kontuan izan behar da gaztelania haur hauen ama hizkuntza dela. Beraz, ez dugu gaztelania, euskararen etsai den hizkuntza moduan tratatu behar, alderantziz.

Eta zuek zer jasotzen duzue?

Lan hau oso esker onekoa da, baita haurrak ere. Gure lana, haurrak pozik egotea da, eta nahiz eta haiekin dugun harremana egun gutxitakoa den, gu oso ongi egoten gara haiekin, eta haiek ere gauza bera erakusten digute guri.



GOIZA	ESTALIA
ARRATS.	ESTALIA
BEROENA	7°
HOTZENA	5°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta/Leitza: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra/Leitza: 687 410 032. ibaralde@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza/Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Jaiak

■ **Belauntza.** Bihar San Jose eguna ospatzeko meza egingo da 11:00etan; ondoren hamaiketakoa, txistulariak, dantzariak...
■ **Tolosa.** Tolosa Gourmet arku-meari eskainia izango da Aste Santuan. Bazkariak Zerkausion, Tolosako hainbat jatetxek prestatuak bihurtik hilaren 23ra arte.

Deialdiak

■ **Anoeta.** 2008ko jaiak iragartzeko kartela egiteko lehiaketa. Lanak udaletxean aurkeztu behar dira.
■ **Villabona.** Aizkardi mendi elkar-teen 40. Ibilaldia izango da 30ean. Bi ibilbide Leitzaizan zehar: hamar ordukoa (43 km) eta 5 ordu eta erdikoa (23,5 km). Izen-emaitea www.aizkardi.com, elkar-teen (edo 649717182).
■ **Tolosa.** Gaur, Tolosako Santa Marian elkarteko aitortzako sakramentua izango da 20:00etan. Eliz-kizuna gazteleeraz ere izango da.

Erakusketak

■ **Alegia.** Patxi Tena urtero Kubara joaten da eta bertatik, arteak ikasten dituzten ikasleen lanak ekarzen ditu: asmoa haiei laguntzea da, materiala utziz, beraien margolanak salduz... Ikusgai hilabete osoan zehar jubilatuen tabernan.

Ikastaroak

■ **Ibarra.** Wing T'sun apirilaren 2tik ekainaren 23ra, astelehen eta asteazkenetan 20:30ean. Izen-emaitea, kiroldegian.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 670648.
■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Hurbilekoa ezagutzeko ibilaldia

Altzo » Belauntzatik gora egin zuten 50 lagunek eta egun ederraz gozatu zuten Udalak antolatutako Larte-Erroizpera ibilaldian.

NEREA URBIZU

Altzoko Udalak antolatutako mendi ibilaldia «arrakastatsua» izan da. Erantzun «polita» izan zuen, 50 bat lagun bildu baitziren goizean goiz Altzoko plazan, Larte-Erroizpe mendira joateko. Autoak hartu, eta Belauntzara joan ziren, menditxo honetara joateko.

800 metro inguruko mendia da, eta herenegun egin zuen eguraldi ona aprobetxatuz, paisaia eta ibilaldiaz gozatzeko aukera paregabea izan zuten animatu zirenek.

Altzoko Udalak zioen bezala, «gertu daukagu mendi polit hau, baina askorentzat ezezaguna da». Ez dute berdina esango bertaratutako ziren 50 lagunek. Etxetik gertu, eta gainera, bazkaltzeko garaian berriaz etxera buelta egin zuten. Ibilaldia ere, erraza: ez zen aitzakiarik mendira joateko.



Larte-Erroizpe menditik paraje ederrak ikus daitezke. Horretaz gozatu zuten bertaratutako zirenek. HITZA




Altzotik 50 bat lagun joan ziren Larte-Erroizpe mendira, eta bazkaltzeko garaian bueltatu egin ziren. HITZA

A Agurrak



Urte askoan!

Irune Sarasola (Asteasu).
Gaur 4 urte. Muxu bat etxekoan partetik.



Urte askoan!


Aratz (Zizurkil).
Gaur 12 urte. Zorionak eta ondo pasa familiaren partetik.



Urte askoan!

Pitican. Ahaztu ginelakoan? Saharidaz, oporridaz, ongi pasidaz...

agurrak urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...




opor hauetan atera argazkiak

Sari nagusia
Bidaia Agentzia sarcem **bidaide**



Aisia **ADUANA Bainuetxean** (Orduñan, Bizkaian) 2 pertsonentzat.

2. saria



Bi pertsonentzako bazkari edo afarria Berrobiko **Iriarte** jatetxean.

ARGAZKIAK NORA BIDALI

• **P. elektronikoa:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info
• **Postaz:** Argazki lehiaketa, Tolosaldeko eta Leitzaaldeko Hitza, Araba etorbidea 5 behe, atzea 20400 TOLOSA
Nahi baduzu, argazkiak Tolosako edo Leitzaaldeko HITZAren egoitzetara ekarri